



## EBAKUNTZA KIRURGIKOAGATIK OSPITALERATZEKO JARRAIBIDEAK

### Hurrengo ebakuntza kirurgikoa dela-eta, mesedez, arreta jarri gomendio hauetan.

Ospitaleko Osasun Kudeaketako Unitateko Onarpen Unitateak aldez aurretik jakinaraziko dizu ospitaleratze eta ebakuntzarako eguna eta ordua.

Onarpen Zerbitzuan sartzeko adierazitako egunean eta orduan joango zara (ate nagusia). Ospitaleratze-agiria, halakorik baduzu, NANA eta osasun-txartela ekarri beharko dituzu.

**Ebakuntza goizean egin behar badizute:** ospitaleratu aurreko gauean afari arin bat har dezakezu 24:00ak baino lehen. Ondoren, ospitaleratze ordua baino 2 ordu lehenagora arte baino ezin izango duzu ura hartu.

**Ebakuntza arratsaldean egin behar izanez gero,** gosari arina har dezakezu 9:00ak baino lehen. Ondoren, ospitaleratze ordua baino 2 ordu lehenagora arte baino ezin izango duzu ura hartu.

Zure ohiko medikazioari dagokionez, jarraitu Anestesiako kontsultan eman dizkizuten jarraibideak.

Zure segurtasunerako, ez duzu erre behar ebakuntzaren aurreko 30 egunetan.

### GARRANTZITSUA

- **Ebakuntza egin aurreko asteetan zure ohiko egoera aldatzen duen edozein egoera baduzu** (arnas infekzioa aurreko 14 egunetan, ospitaleratzea, ohiko medikazioak aldatzea).
- **Azken 14 egunetan COVID-19 pandemiaren birusak eragindako infekzioaren sintomak edo zantzuak izan badituzu**, hala nola arnas- gaixotasuna edo arnasa hartzeko zailtasuna, eztul lehorra, sudurreko jariakina, eztarriko mina, > 37°C sukarra, beherakoa edo gorakoak, larruazaleko erupzioak edo anpoilak, edo adierazi nahi dituzun beste sintoma batzuk.
- **Azken 14 egunetan kontaktu estua izan baduzu infekzio/sintomen susmoa duten pertsonekin edo COVID-19 gaixoekin, adierazi.**
- **Edozein arrazoirengatik, programatutako egunean operatu ezin bada.**

**Deitu PROGRAMAZIO KIRURGIKORA Tel.: 945 0076 64**

**LANEGUNETAN, 8:00etatik 15:00etara**

KATEAK, DOMINAK, PIERCINGA, ERAZTUNAK, BETAURREKOAK, ERLOJUA, MAKILLAJEA ETA AZAZKALETAKO ESMALTERIK GABE SARTU BEHARKO ZARA EBAKUNTZA-GELARA. ERA BEREAN, EDOZEIN PROTESI MOTA KENDU BEHAR DA (LENTILLAK, HORTZ POSTIZOAK, ETAB.) EDO EBAKUNTZA-GELARA IRISTEAN OHARTARAZI.

**Gogoan izan ebakuntzaren amaieran ABUra (anestesia osteko Bizkorketa Unitatea)** eraman ahal izango zaituztela, ebakuntza egin ondoren kontrola zaitzaten.